



2018KO OTSAILAREN 21EAN BATZARRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2018ko otsailaren 21ean, 19:05tan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua
ALBIZTURKO UDALA (%0,53): Carlos Ugartemendia Leunda
ALEGIAKO UDALA (%2,85): Unai Iraola Aguirrezabala
ANDOAINGO UDALA (%23,92): Ana Carrere Zabala
ANOETAKO UDALA (%3,09): Pedro M^a Estanga Lasa
BALIARRAINGO UDALA (%0,21): Olatz Iriarte
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala Ezkurdia
IKAZTEGIETAKO UDALA (%0,76): Bakarne Otegi Jauregui
IRURAKO UDALA (%2,73): Jose Ramon Epelde Irizar eta Jesus M^a Alonso Insausti
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria
LEABURU-TXARAMAKO UDALA (%0,61): Itziar Zubelzu Urbietta
LIZARTZAKO UDALA (%1,05): Leyre Gordo Castro
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria

ETORRI EZ DIRENAK:

ABALTZISKETAKO UDALA (%0,54): Kepa Gorostidi Garmendia
ASTEASUKO UDALA (%2,49): Joseba Txapartegi Nieve
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42): Silvia Moneo Cid
ELDUAINGO UDALA (%0,39): Miren Amaia Askasibar Agirre
HERNIALDEKO UDALA (%0,57): Miren Karnele Pellejero Galarraga

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2018ko urtarrilaren 17ko Batzarraren Akta onartzea.**
- 2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20171231.052etik LE20180208.003ra.**
- 3. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko abenduaren 26ko bilkuran onartutakoa, Gipuzkoako ingurumen gunea bigarren fasearen diseinua, eraikuntza, finantzaketa, operazioa eta mantentzea proiektuaren adjudikazioa, obra publikoaren emakida bitartez, kontratatzeko espedientea, gastuaren onarpena eta adjudikaziorako prozeduraren irekierari, errekurtsioa jartzea.**

- 4. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko abenduaren 26ko bilkuran onartutakoa, Gipuzkoako ingurumen gunea bigarren fasearen eraikuntza, finantzaketa, operazioa eta mantentzearen, aurre proiektuaren behin betiko onarpenari, errekurtsioa jartzea.**
- 5. Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko abenduaren 26ko bilkuran onartutakoa, Gipuzkoako ingurumen gunea bigarren fasearen eraikuntza, finantzaketa, operazioa eta mantentzearen, bideragarritasun azterketaren behin betiko onarpenari, errekurtsioa jartzea.**
- 6. Galde-erreguak.**

Mankomunitatearen Idazkari den Leire Arteaga Zumetak eman dio fede aktari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Alkiza, Altzo, Amezketza, Berastegi, Berrobi, Gaztelu, Orendain, Oresa, Villabona eta Zizurkilgo ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutuetoako 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ALKIZAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

ALTZOKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

AMEZKETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

BERASTEGIKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

BERROBIKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

GAZTELUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

OREDAINGO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

ORESAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

VILLABONAKO UDALA: Ordezkaria, Patxi Amantegi Zubiria.

ZIZURKILGO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. 2018ko urtarrilaren 17ko Batzarren Akta onestea.

Idazkariak azaldu du ez duela denbora eman Akta hau behar bezala idatzi eta gainbegiratzeko, eta ondorioz, ezin izan dela bidali bildutakoei. Hurrengo Batzarrean onesteko uzten da.

2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20171231.052etik LE20180208.003ra.

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren

28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

LE20171231.052
LE20171231.053
LE20171231.054
LE20180104.001 BIS
LE20180110.001
LE20180129.002
LE20180208.003

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

3. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko abenduaren 26ko bilkuran onartutakoa, Gipuzkoako ingurumen gunea bigarren fasearen diseinua, eraikuntza, finantzaketa, operazioa eta mantentzea proiektuaren adjudikazioa, obra publikoaren emakida bitartez, kontratatzeko espedientea, gastuaren onarpena eta adjudikaziorako prozeduraren irekierari, errekurtsua jartzea.

Lehendakariak hartu du hitza, Batzarraren zergatia azaltzeko: Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak hartutako erabakiei helegitea jarri ahal izateko epea datorren otsailaren 26an amaitzen delako. Oraingo honetan, Gipuzkoako ingurumen guneko Bigarren faseari jarri nahi zaizkio errekurtsuak, iaz Lehenengo faseari jarri zitzaizkion bezala.

Gai honekin jarraitu aurretik, Lehendakariak beste gai bat aurkeztu du: Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak 2017ko abenduaren 26ko bilkuran 2018 ekitaldirako hiri hondakinen goi kudeaketa zerbitzuak eskaintzeko tarifen onarpenaren aurka helegitea jartzea. Lehendakariaren ustez, tarifa hauek kaltegarriak dira mankomunitatearentzat, GHK-k erabiltzen duen sistemak tasa hauek kalkulatzeko karga gehiegi atxikitzen diolako organikoaren tasari. 2017ko tarifak ere errekurritu daude, kalkulatzeko garaian irizpide bera erabiltzen dutelako.

Kasu honetan, Batzar honetako gai-zerrendan ezin izan denez sartu, eta kontuan harturik errekurritzeko epea datorren otsailaren 26an amaitzen dela, Mankomunitateko Estatutuen 32.g artikulua arabera, Lehendakariaren Ebazpenaren bidez onartuko da eta hurrengo Batzarrean onetsiko da.

Ondoren, Lehendakariak puntu honetako gaiaren azalpenekin jarraitzen du: 2017ko abenduaren 26an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, Gipuzkoako ingurumen gunea bigarren fasearen diseinua, eraikuntza, finantzaketa, operazioa eta mantentzea proiektuaren adjudikazioa, obra publikoaren emakida bitartez kontratatzeko espedientea, gastuaren onarpena eta adjudikaziorako prozeduraren irekiera onartu zituen.

Hori errekurritzeko bi hilabeteko epea dago. Epe hori otsailaren 26an amaitzen da.

2018ko abenduaren 31ko txosten juridikoa bidali zaie batzarkideei, eta bertan Ebazpen hau errekurrizko oinarriak jasotzen dira. Laburbilduz, ondorengo argudio juridikoak erabiltzen dira:

- Kontratuaren xedea ez da legezkoa.
- Kontratuaren kalifikazio juridikoan funtsezko akatsa: Kudeaketarako zerbitzu publikoko kontratua izan beharrean obra publikoko kontratua izatea.
- Eskumena falta plangintza sektoriala, lurraldekoa eta hirigintzako arloetan erabakiak hartzeko.
- Kontratuaren eragiketa-arriskua ez da eramaten esleipendunari.
- 2014/23 zuzentarauaren urratzea.

Tolosako ordezkariak hitza hartu du adierazteko lehengo urtetik datorren kontu berberaren eztabaidarekin jarraitzen dela, eta GHK-tik datorren erabaki bat bada han bertan kudeatu behar dela, eta ez mankomunitatean. Ezarrita dauden joko arauak errespetzatzea eta gaiarekin propaganda politikoa ez egitea eskatzen du, gaineratuz bere botoa aurkakoa izango dela.

Lehendakariak erantzun dio esanez ez dela bere asmoa ezer politizatzea, mankomunitatearen interesak defenditzea baizik.

Tolosako ordezkariak gogorarazten dio aurreko legealdiko kontuak pasa zirela eta egungoan beste ordezkari batzuk hautatu direla erabaki desberdinak hartuz, errepikatzen du GHK-an adierazi behar dela adierazi beharrekoa eta gaineratzen du errekurso hauek ez doazela inora eta aldiz, bai sortzen diotela kostua mankomunitateari eta gainontzeko udalei.

Anoetako ordezkariaren iritziz, mankomunitatea emaitza onak lortzen ari da hondakinen kudeaketan eta Gipuzkoa osora zabaltzea komenigarria litzateke.

Tolosako ordezkariak erantzun dio gai horrek ez daukala zerikusirik eztabaidatzen ari diren puntu honekin.

Ibarrako ordezkariak parte hartzen du adieraziz zerikusia daukala, zabor gutxiago sortuko balitz GHK-k ez litzukelako horrelako erabakiak hartu beharrik.

Lehendakariari ere iruditzen zaio zerikusia daukala, gaineratuz GHK-ren erabakiak legearen aurka doazela.

Andoaingo ordezkariak Tolosakoari gogorarazten dio aurreko legealdian atez ateko sistemaren aurkako mugimendu baten sortzaileetariko bat izan zela, horrela gaia

politizatuz bere iritziz. Eztabaida juridikoa izan beharko lukeela eta ez politikoa gaineratzen du.

Tolosako ordezkariak onartzen du gaia bera dela politikoa, eta berak beste batzuk botatako haritik jarraitu besterik ez duela egiten. Gaineratzen du mugimendu horren helburua soilik bilketa sistemak zirela, zehazki atez atekoaren aurka, ez errauskailua.

Andoaingo ordezkariaren ustez, legealdi berriarekin gehiengoak ez dira bakarrik aldatu Foru Aldudian, baita ere udal eta mankomunitateetan ere, eta denak onartu behar dira.

Tolosako ordezkariak insistitzen du mankomunitatearen dirua erabiltzen dela errekurtsio hauek jartzeko garaian, onartezina iruditzen zaiolarik.

Lehendakariak erantzuten dio diru pixka bat bakarrik erabiliko dela, eta argi utzi nahi dio eztabaidatzen ari den gaia alderdi juridikotik bakarrik tratatu nahi dela, ez politikotik, horretarako aurkeztu direlarik dagozkion txosten juridikoak.

Alegiko ordezkariak Tolosakoari esaten dio atez ateko sistemaren kontra joatea ez zaiola iruditzen harro egoteko modukoa, eta bere iritzia lekuz kanpo dagoela uste du.

Eztabaidarekin amaitzeko, Lehendakariak gogorarazi nahi du ondorengoak: nahiz eta errekurtsio hauek aurkeztu, atzera bota daitezke iaz aurkeztutakoan (I Faseari dagozkionak) epaia kontrakoa bada.

Ondoren, Lehendakariak bozkatzeko deia egin du, emaitza honekin:

Batzarrera bertaratutako udalerrri eta botoak		ALDE		KONTRA		ABSTENTZIO	
Udalerrriak	% botoak	Udalerrriak	% botoak	Udalerrriak	%botoak	Udalerrriak	%botoak
Aduna	% 0,77	Aduna	% 0,77				
Albiztur	% 0,53					Albiztur	% 0,53
Alegia	% 2,85	Alegia	% 2,85				
Alkiza	% 0,61	Alkiza	% 0,61				
Altzo	% 0,65	Altzo	% 0,65				
Andoain	% 23,92	Andoain	% 23,92				
Amezqueta	% 1,58	Amezqueta	% 1,58				
Anoeta	% 3,09	Anoeta	% 3,09				
Baliarrain	% 0,21	Baliarrain	% 0,21				
Berastegi	% 1,72	Berastegi	% 1,72				
Berrobi	% 0,93	Berrobi	% 0,93				
Gaztelu	% 0,28	Gaztelu	% 0,28				
Ibarra	% 6,95	Ibarra	% 6,95				
Ikaztegieta	% 0,76	Ikaztegieta	% 0,76				
Irura	% 2,73			Irura	% 2,73		
Larraul	% 0,42	Larraul	% 0,42				
Leaburu	% 0,61	Leaburu	% 0,61				
Lizartza	% 1,05	Lizartza	% 1,05				
Orendain	% 0,32	Orendain	% 0,32				
Orexa	% 0,20	Orexa	% 0,20				
Tolosa	% 30,91			Tolosa	% 30,91		
Villabona	% 9,61			Villabona	% 9,61		
Zizurkil	% 4,89	Zizurkil	% 4,89				
23 udalerrri	% 95,59	19 udalerrri	% 51,81	3 udalerrri	% 43,25	Udalerrri 1	% 0,53

Hauek guztiak eta apirilaren 2ko 7/1985 Toki administrazioaren araubideari buruzko oinarrien legearen 22.j) atala eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, toki araubideari buruz indarrean dauden xedapenen testu bateratuaren 54.3 artikulua kontutan hartuta, Batzarrak,

ERABAKI DU

LEHENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko abenduaren 26ko bilkuran onartutakoa, Gipuzkoako ingurumen gunea bigarren fasearen diseinua, eraikuntza, finantzaketa, operazioa eta mantentzea proiektuaren adkudikazioa,

obra publikoaren emakida bitartez kontratatzeko espedientearen onarpena, gastuaren onarpena eta adjudikaziorako prozeduraren irekierari errekurtsua jartzea.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari eta GHK SAUri onartutakoa jakinaraztea.

4. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko abenduaren 26ko bilkuran onartutakoa, Gipuzkoako ingurumen gunea bigarren fasearen eraikuntza, finantzaketa, operazioa eta mantentzearen, aurre proiektuaren behin betiko onarpenari, errekurtsua jartzea.

Lehendakariak azaldu du, 2017ko abenduaren 26an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, Gipuzkoako ingurumen gunea bigarren fasearen eraikuntza, finantzaketa, operazioa eta mantentzearen, aurre proiektuaren behin betiko onartu zituela.

Hori errekurritzeko bi hilabeteko epea dago. Epe hori otsailaren 26an amaitzen da.

2018ko abenduaren 31ko txosten juridikoa bidali zaie batzarkideei, eta bertan Ebazpen hau errekurritzeko oinarriak jasotzen dira. Laburbilduz, ondorengo argudio juridikoak erabiltzen dira:

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Testu Bateginaren 128 artikulua urratzea, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Legegintza Dekretuak onartua.
- Plangintza sektoriala, lurraldekoa eta hirigintzako ez betetzea.

Ondoren, Lehendakariak bozkatzeko deia egin du, emaitza honekin:

Batzarrera bertaratutako udalerri eta botoak		ALDE		KONTRA		ABSTENTZIO	
Udalerriak	% botoak	Udalerriak	% botoak	Udalerriak	%botoak	Udalerriak	%botoak
Aduna	% 0,77	Aduna	% 0,77				
Albiztur	% 0,53					Albiztur	% 0,53
Alegia	% 2,85	Alegia	% 2,85				
Alkiza	% 0,61	Alkiza	% 0,61				
Altzo	% 0,65	Altzo	% 0,65				
Andoain	% 23,92	Andoain	% 23,92				
Amezqueta	% 1,58	Amezqueta	% 1,58				
Anoeta	% 3,09	Anoeta	% 3,09				
Baliarrain	% 0,21	Baliarrain	% 0,21				
Berastegi	% 1,72	Berastegi	% 1,72				
Berrobi	% 0,93	Berrobi	% 0,93				
Gaztelu	% 0,28	Gaztelu	% 0,28				
Ibarra	% 6,95	Ibarra	% 6,95				
Ikaztegieta	% 0,76	Ikaztegieta	% 0,76				
Irura	% 2,73			Irura	% 2,73		
Larraul	% 0,42	Larraul	% 0,42				
Leaburu	% 0,61	Leaburu	% 0,61				
Lizartza	% 1,05	Lizartza	% 1,05				
Orendain	% 0,32	Orendain	% 0,32				
Orexa	% 0,20	Orexa	% 0,20				
Tolosa	% 30,91			Tolosa	% 30,91		
Villabona	% 9,61			Villabona	% 9,61		
Zizurkil	% 4,89	Zizurkil	% 4,89				
23 udalerri	% 95,59	19 udalerri	% 51,81	3 udalerri	% 43,25	Udalerri 1	% 0,53

Hauek guztiak eta apirilaren 2ko 7/1985 Toki administrazioaren araubideari buruzko oinarrien legearen 22.j) atala eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, toki araubideari buruz indarrean dauden xedapenen testu bateratuaren 54.3 artikulua kontutan hartuta, Batzarrak,

ERABAKI DU

LEHENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko abenduaren 26ko bilkuran onartutakoa, Gipuzkoako ingurumen gunea bigarren fasearen

eraikuntza, finantzaketa, operazioa eta mantentzearen, aurre proiektuaren behin betiko onarpenari errekurtsua jartzea.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioari eta GHK SAUri onartutakoa jakinaraztea.

5. Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko abenduaren 26ko bilkuran onartutakoa, Gipuzkoako ingurumen gunea bigarren fasearen eraikuntza, finantzaketa, operazioa eta mantentzearen, bideragarritasun azterketaren behin betiko onarpenari, errekurtsua jartzea.

Lehendakariak azaldu du, 2017ko abenduaren 26an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, Gipuzkoako ingurumen gunea bigarren fasearen eraikuntza, finantzaketa, operazioa eta mantentzearen, bideragarritasun azterketa behin betiko onartu zituela.

Hori errekurritzeko bi hilabeteko epea dago. Epe hori otsailaren 26an amaitzen da.

2018ko abenduaren 31ko txosten juridikoa bidali zaie batzarkideei, eta bertan Ebazpen hau errekurritzeko oinarriak jasotzen dira. Laburbilduz, ondorengo argudio juridikoak erabiltzen dira:

- Bideragarritasun Azterketak 2008/7 Foru Araua urratzen du.
- Bideragarritasun Azterketak Espainiako Konstituzioaren 103. artikulua urratzen du.
- Kontratuaren kalifikazio eta izaera juridikoan funtsezko akatsa.
- Obra Publikoaren Kontseziorako xede eta justifikazioaren errekurtsuan Lege Iruzurra.
- Bideragarritasun Azterketaren Arriskuen Ikerketak Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2014/23/UE Zuzentaraua urratzen du.

Ondoren, Lehendakariak bozkatzeko deia egin du, emaitza honekin:

Batzarrera bertaratutako udalerri eta botoak		ALDE		KONTRA		ABSTENTZIO	
Udalerriak	% botoak	Udalerriak	% botoak	Udalerriak	%botoak	Udalerriak	%botoak
Aduna	% 0,77	Aduna	% 0,77				
Albiztur	% 0,53					Albiztur	% 0,53
Alegia	% 2,85	Alegia	% 2,85				
Alkiza	% 0,61	Alkiza	% 0,61				
Altzo	% 0,65	Altzo	% 0,65				
Andoain	% 23,92	Andoain	% 23,92				
Amezketeta	% 1,58	Amezketeta	% 1,58				
Anoeta	% 3,09	Anoeta	% 3,09				
Baliarrain	% 0,21	Baliarrain	% 0,21				
Berastegi	% 1,72	Berastegi	% 1,72				
Berrobi	% 0,93	Berrobi	% 0,93				
Gaztelu	% 0,28	Gaztelu	% 0,28				
Ibarra	% 6,95	Ibarra	% 6,95				
Ikaztegieta	% 0,76	Ikaztegieta	% 0,76				
Irura	% 2,73			Irura	% 2,73		
Larraul	% 0,42	Larraul	% 0,42				
Leaburu	% 0,61	Leaburu	% 0,61				
Lizartza	% 1,05	Lizartza	% 1,05				
Orendain	% 0,32	Orendain	% 0,32				
Orexa	% 0,20	Orexa	% 0,20				
Tolosa	% 30,91			Tolosa	% 30,91		
Villabona	% 9,61			Villabona	% 9,61		
Zizurkil	% 4,89	Zizurkil	% 4,89				
23 udalerri	% 95,59	19 udalerri	% 51,81	3 udalerri	% 43,25	Udalerri 1	% 0,53

Hauek guztiak eta apirilaren 2ko 7/1985 Toki administrazioaren araubideari buruzko oinarrien legearen 22.j) atala eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, toki araubideari buruz indarrean dauden xedapenen testu bateratuaren 54.3 artikulua kontutan hartuta, Batzarrak,

ERABAKI DU

LEHENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorrak, 2017ko abenduaren 26ko bilkuran onartutakoa, Gipuzkoako ingurumen gunea bigarren fasearen

eraikuntza, finantzaketa, operazioa eta mantentzearen, bideragarritasun azterketaren behin betiko onarpenari errekurtsioa jartzea.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioari eta GHK SAUri onartutakoa jakinaraztea.

6. Galde-erreguak

Teknikariak hitza hartu du adierazteko epe motzera beste batzar bat egitea komeniko dela, gai batzuk daudelako onartzeko zain. Aipatzen ditu:

- Sukaldeko landare olioaren bilketaren kontratazioa.
- Errefusaren karakterizazioa.

Anoetako ordezkariak, errefusaren karakterizazioaren harira, galdetu du organikoaren %10a baino gehiago inpropioa bada nola tratatzen den. Teknikariak erantzun dio GHK-ak errefusara bideratzen duela kamioiak %5a baino gehiago inpropioa badu.

Andoingo ordezkariak adierazi du bere herriaren organikoa Villabonakoarekin batera jasotzen dela, eta jakin nahi du inpropioak izanez gero zein herrik bere gain hartu beharko litzatekeen. Teknikariak erantzun dio azken karakterizazioko datuen arabera banatu beharko litzatekela.

Lehendakariak uste du guztien artean irizpide bat adostu beharko dela jakiteko zein herrik bere gain hartu behar duen inpropioen kostua, gaur egun rutak nahastuak joaten direnez eta kamioi batek herri desberdinetako hondakinak jasotzen dituen bezala. Helburua herri bakoitzak bere inpropioen kostua asumitzea izango litzateke.

Anoetako ordezkariak azpimarratu du inpropioak gutxitzea oso garrantzitsua dela.

Lehendakariak adibide bat azaldu du: inpropio asko dituen herri baten zaborrak ezin dira nahastu gutxi edo bat ere ez duen beste herriekin. Gaineratu du gai honek ekonomikoki izan behar duela dagokion islada.

Tolosako ordezkariak hitza hartu du adierazteko bere herriaren kasuan %7ko inpropioa dutela gutxi gora behera, eta tasa hau gutxitzeko helburuen artean, ikastetxeetako organikoaren inpropioak jaisten saiatuko direla.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko zazpiak eta berrogeitahamabost direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA